

Jun ziran! Baño zer onik utzita?

Mutiko bati zenbat urte zituan galdetu nion. «Bost» —erantzun zidan.

—Nun dituzu ba, potxolo maite, zure urte oiek? Poltxikoan gorderik ala?

—Eee...! —arek parre-algaraz— urteak poltxikoan? Jun ziran!...

Jun ziran. Poliki esana. Zarrast zarrast, eratxi ditut bat banaka, egunean eguneko, urtearen 365 orriak. Kimatu det urte-
arbola; gelditu da ostrorik gabe enbor. Ona emen azkeneko orria nere eskuan: 1955 —gabonilla— 31. Jun ziran...

Iadanik, Zizeron argiak poliki esan zun: «Horae quidem cedunt et dies et menses et anni...» (De Senect., XIX) «Orduak ba-doiiaz, baita egunak eta illak eta urteak ere; bafian igazitako denbora sekula geiago ez itzuliko; etorkizunari antzematerik berriz ez dago».

Oi, denbora dan irristakorra! Izan ere, orixe da bere zori eta alabearra: cedunt, jun ziran. «Joanak joan ta or konpon» esanda ez dago, ordea, gelditzerik. Joandako aldiak bai baitu bere ondoko eta jarioa: bere sustraiko altxuma du etorkizuna. Alkarrri ertsi-ertsi loturik dabiltz joan-aldia ta etortzekoa. Atzokoak erungo egunari, eta gaurkoak biarkoari, egiten dio bide.

Ortaz, atzokoa txarra joan zaigula esan bearko, gaur ain larri gabiltzalarik. Euskerari buruz eta arpegiz diot ori. Gure izkuntza gaitzaundi iritxi baitzaigu. Eginbear estua benetan atzokoak laga diguna. Euskerari bizirik eustea!, orrenbesterañokoa!, da gaurko gure arloa. Euskeraren bizi-gordezko adur ontan, negarrak eta lantuak (ez dute guretzat onik-eta) eramán bitza bi-biak atariko aizeak. Bularra arnasaz sendo aizatu, ta lanean

jo ta ke aritzea, dagokigu orratio, etorkizunera begiak zorrotzurik. Biarkoa gaur ari bait-gera zertzen eta mamitzen.

Dan danok arlo orri loturik. «Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruya». (Detxepare). Lanak ditu orrek, mutillak. Baña nor oztu ta atzeratu bere saillean?

«Itxasoetan da legorrean
ondo ta gaizki-denporan
berez euskaldun garbia danak
ez daki ukatzen nor dan».

(P. M. Otaño: Gu ta Guk, 7). Bestelan,

«Un peuple qui laisse s'anéantir la langue et les usages de ses pères ne mérite que de crever».

Bere gurasoen izkera ta oiturak galtzen uzten dituan erriak ler egitea besterik ez du merezi.

(Mistral; Abbé Arotsarena, Grammaire Basque).

Ara ba euskal-gizona bere arloaren aurrez aurre. Joan dan urtean nola jokatu degu? Arnas bideak iriki dizkiogu euskerari, ala iltzen utzi diogu, biotz gogor eta sentimentugabeaz? Gure oinarrastoei ifioiz begiratzekotan, oraintxe ba. Niketz, kontu auxe eskatzera noa nere buruari, danon aurrean, emendixe. Euskal saillean aurten zer ibillia naizen, aitortu nai det. Bizkor saia ba'naiz,

«arkitu nadin pozaren
izate eder osuan» (Uranga, Enaden... 8).

edo bestela, «mea culpa» buru-makur aitor dezadan euskal lan-kidean aurrean. Lau zuifetan ebakiko det nere sailla: irakur-tze, idazte, laguntasun, zabalkunde.

Irakurtze: Platero ta Biok. Goldaketan. Barne Muinetan (askogarren aldiz). Bertso Berriak (sail aundia). Joanak Joan. Elezarrak. Arraun ta Amets. Arimaren Zuzenbidea. Oxixe'ren Mezaliburutik egunekoa. Atximurka edo irakurralditxoak, gañera, ilburu askotatik egin ditut, Euskaldunak poematik batez ere.

Aldizkari —errebista— etatik, *EGAN* eta *Euzko-Gogoa* oso osorik irentsi oi ditut; *Anaitasuna* ta *Zeruko Argia*'tik ere geient-suena beti.

Idazte: Txuri egin det emen; sail exkaxa bota.

«Luberri» zanerako, iru-lau bat lantxo. Egiten ari naizen li-buruxka bati eman diot aurrerapen zerbait, baña sailla asko aurreratzeke. Ortik aurrera, tajuzko ezer gutxi: eskutitzak eus-

kaldunai beti-edo euskeraz; irakurri-ahala, esaera eder eta itz txorrotx asko bildu; berebat lagunetik itzaspertu eta jardunetan. Jasotako ale bi, adibidez: Baserritar agure batek irakatsi zidan, batere uste etzuala, *speaker* itza euskeraz. Ostiko-pelota jokaldia irratiz (radioz) sutondoan entzuten geundela, tar-teko ixillune batean esan zun: «Ñio! *esatari* bizkorra, or bestaldean ari dan ori...»

Jai goiz batez entzun nuan, izan diteken alkarrizketarik motxena. Lagun bi txirringoan Azkoiti aldera. Bide-ondoan mutil-gazte bat, zelaiko larrebeiei begira. Ontan, dihoanak itzeman eta dio:

—«Zai?

—Bai!», unaiak erantzun.

Laguntasun: Ba-dio norbaitek (Arturo Campion'ek, oker ezpanago) Aita José Arana jesuita, bertso-berri papelak biltzen ibillia zala, ta beraz, naiko pilla aundia inguratua; baño ez dala bertso oien arrastorik gelditu, or nunbait bazterren baten egongo dirala galduta. Bertso sorta orrekin topo egitea gerta zitzaidan, alabearrez. Ortik asi nintzan bertso geiagoren billa, mordoska bat bai inguratu ere laister. Ordurako bañan, elkarren berri gabe, beste norbait ba-zebillen pizkor lan berean, ni baño aurreratuagorik gañera, bere gazte-sasoiaren abaroan. Arri-zeko bertso-pilla osaturik da gazte euskaltzale ori, dagoneko. Bejondeiola. Esan gabe doa, nere «gari alea» aren mandioko ale-pillari gogoz gañeratu niola; ta geroztik ere, nere laguntasun apurra beretzat izango dala.

Zabalkunde: Baserri ta kale-jende artean liburu sailtxoa banatua naiz, irakurtzeko. Batzuek itzuli dira, dagoneko, bere tegira; bestetzuk eskuz esku dabiltz oraindio. Oietatik: Eder Ederria, Ama Semeak, Goretti, Garoa, Noni eta Mani, Loretegi Berria, Fernando Amezketarra, Euskera irudi bidez, por Norbait. Irakurleok gazte-jende dira, erabat.

Gazte sail ortatik batzuk berotu ditut EGAN, Eusko-Gogoa ta Kuliska Sorta'ren arpidean jartzeko. Baiezkoan dira, ta Donosti-Zarautz-Guatemala'rako zuzenbideak arturik, noski. Urteko nere *pozik**pozena ori da. Ori, ta ondoko au gañera.

Bilbo'ra nihoan trenez. Zumaia'n sartu nintzan. Sala artan gure euskereak etzeukan zer egiñik. Leiotik mendira botea zuten nunbait. Larrera? Deba'n sartu ziran banaka batzuk; Eibar'en ugarixeago. Alare, euskerarik e'tzan azaldu iñun. Plazentzi, Ermu, Zaldibar ta beste erri xeetako jendeek ere barrukoan erara ekin zioten, andre ta anderañoek batez ere. Oh, oiek!

Ta nik nere baitan: «Emengo geienak euskaldunak izango dituk ba, arrano pola. Ta nun zimeldu ta igartu zaigu gure euskerea? Ea emen bertan, auen ezpafietan piztu ta berriz lore biurtzen detan! Ortarako ze-asma jarri nintzan. Ta buruak, nere leku ohea itxasmifiez (mareaturik) zetorren emazteki dotore bati eskeintzea, eman zidan. «Gaizki zatoz, —ekin nion. Nai al dezu leio-ondoan nere exeri-lekua?» Euskeraz erantzun eta pozik artu zidan. Bere lagunakin ezker eskui «berbetan ekin neutson», bizkaitarrak edo bizkai-euskaldunak baitziran.

«Tren au inyekzio-tresna ezten-txorrotx oietako bat ba'litz!...» Ezezkoa eman, baño azkenik, ark ere, artu zidan. «Caballero» itxurakoa zan, baña zalduna izan. Bai ba, alako bizkar zabal, pelota lekua añaokakin; alako sudur kako irtenakin; alako erdera ziki-zaka mordollotuarekin.

Ondoren, ni zutik ikusita, truke-naia azaldu zidan gizon batek, beraz ni exerita, bera tente. Bilbo gertuan gendualazko aitzakiz, ez nion aintzat artu. Orrelatsu, salako jenderik geiena euskeraz jarri nuan.

Dagoneko, beste amets alper bat pizturik nuan nere kaskarreko tuturrean. Ara:

«Tren au inyekzio-tresna ezten-txorrotx oietako bat ba'litz!... Zertarako baña? Dijoan bezela, bere erru bizian, Bilbo'n bar-na sartzeko, ez axalean gero, barru-barruko erraietaraño baidzik; guk saloian daramagun euskerea antxen ustutzeko. Trena ordea e'tzan barrura sartu. Atxuri'n gelditu zan. Auxen da, gutxi gora bera, euskereakiko aurtengo nere jokaera. Eskaxa nos ki. Mea culpa aitortzea dagokit beraz, eta asmo sendoagorik ondoko urterako artzea. Danon artean «euskera yalgi dezagun plazara».

